

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, TOLOSAKO UDALAREN 2020KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak (aurrerantzean, HKEE) joan den abenduaren 1ean aho batez onartu zuen Tolosako Udalaren ekonomiaren eta finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2020ko ekitaldiari buruzkoa.

2020ko ekitaldiko **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** eman du, baina adierazi du Udalaren ibilgetu materialak ez duela barne hartzen 2016a baino lehenagoko azpiegituretako inbertsioen kostu garbia.

Finantza egoerari dagokionez, HKEEk adierazi du COVID-19aren krisiak diru-sarrera korronteetan izan duen eraginak zigortu egin duela eragiketa korronteetan eskuratutako aurrezki-maila. Aurrezki hori erabili da zorpetzea murrizteko, kapitalezko eragiketak finantzatzeko eta Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina areagotzeko.

Aurrekontuaren egonkortasun helburuak eskuratzeari dagokionez, bertan behera utzi ziren 2020rako ezarritako helburuak, COVID-19aren krisia zela-eta. Alabaina, Kontuhartzaitzaren txostenak adierazi du helburuak beteko ziratekeela, eragiketa ez-finantzarioetan superabita izan dutelako, zorpetzea diru-sarrera korronteen % 16,4 izan delako eta gastua murriztu delako 2019arekin alderatuta.

Udalak zuzentasunez **bete du** 2020an bere jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duen **lege-arautegia**, nahiz eta **kontratazioan** akats puntualak antzeman diren (zerbitzu-kontratu bat 25 urterako adjudikatzea justifikaziorik gabe; hiru zerbitzu-kontratu finkatutako epeaz haratago luzatzea; eta bi kontratu txiki publikotasun eta lehia printzipioak bete gabe tramitatzea).